DURANGALDEKO ALDIZKARIA
ANBOTO.ORG / TOKIKOM.EUS

25 anboto
GARENA KONTATZEKO

ESKARIA EGITEKO
AZKEN EGUNAK
Egin eskaera
labur.eus/anboto

25. URTEURRENA

Komunitate oso bat zilarrezko urteurrena ospatzen

Astelehenean Plateruenean ospatu genuen ANBOTOren 25. urteurreneko ekitaldiak komunitate osoko ordezkariak batu zituen. Mila esker, anbotozale!



Urteurren ekitaldiaren amaieran ateratako familia argazkia.

XERRA ESTUDIOA

ANBOTO

Astelehenеko ekitaldian kazetaritza eta euskara aldarrikatu ziren / 14



ANBOTOko lantaldea.

TOKIKOM

"Gure proiektuak sinesgarriak eta maitatuak dira" / 16

Iban Arantzabal
Tokikomeko presidentea




ZERO KILOMETROA

Gauargi taberna, ANBOTO babesten duten tokiko komertzioen isla / 18



Lorena Porras eta Vanesa Delgado.



labur.eus/anboto





Egin eskaria ONLINE dendan

ANBOTOk arropa diseinatu eta salgai ipini du, 25. urteurrena borobiltzeko



Jone Guenetxea DURANGALDEA


Astelehenean ANBOTOren 25. urteurreneko ospakizunean Plateruenean jasoriko berotasuna eta bultzada ez ditugu berehalakoan ahaztuko. Proiektuagaz gogotsu jarraitzeko eta indarberritzeko balio izan dio komunitate osoari, zalantzarik barik. 'Garena kontatzeko' ozen eta bateratu bategaz amaitu genuen ekitaldia. Eta lelo hori luzaroan akorduan izateko, ANBOTOk arropa diseinatu du urteurrenari lotuta. Umeentzako kamisetak eta helduentzako kamiseta eta jertseak salgai daude, kotoi organikokoak, *anboto.org* webgunean. Adi ibili, eskaera azaroaren 17ra arte egin daiteke eta. Urteari ipini gura izan diogun ginga izan da. Modelo bakoitzaren loturan sartuta, bakoitzaren neurriak zehaztuta agertzen dira, eskaera ahalik eta ondoen egin ahal izateko. Zalantzarik izanez gero, ohiko neurria baino bat gutxiago eskatzea gomendatzen dizuegu.



Komunitate oso baten emozio bilduma

Ekaitz Herrera DURANGO

Astelehen iluntzeak askotariko emozioak sortu zituen: hunkidura, barre-algara, lilura... Eta hori guzti hori kolaboratzaile talde eder bati eskerrak lortu genuen. Eskerrik asko bihotz-bihotzez Mar-mar taldeko Aritza Rodriguez, Igor Iglesias eta Maitane Serranori; Karrika antzerki taldeko Maite Lopez, Larraitz Zarandona, Garazi Magunagoitia eta Maialen Magunagoitiari; Liher Granados eta Aritz Lasargureni; Bego Peñarandari; Leire Bilbao, Markel Sanchez eta Iruri Altzerrekari; Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Josu Zabalari, eta instituzio publikoetako ordezkariei! Era berean, eskerrik beroenak astelehenean modu batera zein bestera ekitaldian parte hartu zenuten denei.











AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
www.fernandouribe.es
Barrenkalea, 15 behea Durango
Tel.: 946 816 423
info@fernandouribe.es
www.fernandouribe.es
ZORIONAK ANBOTO














Smurfit Westrock
Central Forestal
Zorionak Anboto!
+55 urte Euskadiko pinudiak zaintzen
Smurfit Westrock
Nervión
Etorkizun hobe baterako enbalaje iraunkorrak


Zorionak Anboto!
ARRIBIDE
ARRIBIDE
GASOLINDEGIA
ARRIANDI INDUSTRIGUNEA, P-1
48215 IURRETA-BIZKAIA
estacionservicio@arribide.com
946 818 381 · arribide.com












JUAN OROBIOGOITIA BHI
ZORIONAK ANBOTO!
Olaburu 3
IURRETA
Tel.: 94 428 80 00
www.orobiogoitiabhi.hezkuntza.net
KALITATEA HEZKUNTZAN
Eskola Jasangarria Ziurtagiria

SAN ANTONIO IKASTETXEA
Irakasleon Kooperatiba
anboto
ZORIONAK
ANBOTO!
25 urte herriaren ahotsa, konpromisoa eta kultura zabaltzen

berrizko UDALA
Zorionak Anboto!
Berrizko Udala
Tel.: 946 824 036
www.berriz.eus
Bikain









ERLIA
CONTENEDORES
www.contenedoreserlia.com



Geure hondakindegia dugu.
Harrobietako materialen banaketa.
Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu.
Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 · 48220 ABADIÑO
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107

LASUEN
ERAIKUNTZA · OBRA ZIBILA · ZABORTEGIAK

ZORIONAK ANBOTO



CONSTRUCCIONES LASUEN
Astola auzoa, 68
48220 Abadiño
Tel.: 946 81 40 36
clasuen@lasuen.com
construccioneslasuen.com




Zorionak Anboto!
Zaldibar Elizateko Udala
Tel.: 946 827 016 . www.zaldibar.eus
Zaldibar Elizateko Udala





Durangoko eta Abadiñoko aurkezpenak.

2001 **ANBOTOREN SORRERA**
ERAZ aldizkariaren lekukoa hartuta, 2009an ANBOTO sortu zen. Lehenengo alea azaroaren 9an kaleratu zen. Durangaldeko hainbat kultur eta kirol eragilek eta hainbat erakunde eta norbanakok bultzatutako proiektua izan zen. Zabalkundean ahalegin berezia egin zuten, herririk herri aurkezpenak eginez. Argazki hauek Durangoko eta Abadiñoko aurkezpen egunetakoak dira.



Iurretako bulegoaren inaugurazioa.

2010 **IURRETAKO BULEGOAREN INAUGURAZIOA**
ANBOTOren lehenengo bulegoa Durangoko Santa Ana plaza ondoan zegoen. Xarma handiko pisu bat zen, bulego izateko baliabide gutxikoa. Urteek aurrera egin ahala, beste kokapen bat beharrezkoa zela argi izan genuen. Hainbat aukera aztertu eta gero, Iurretako Bixente Kapanagara lekualdatu ginen.





500XZUko bizikleta martxa.

2013. URTEA **500XZU**
Konturatu barik 500. alera heldu ginen. Zenbaki hori behar zen moduan ospatu gura genuen, eta, horregaitik, egun osoko egitaraua prestatu genuen. Goizean bizikleta martxa eta dantzak egin genituen Ezkurdin. Pintxoak ere banatu genituen. Eta eguerdian bazkaria Plateruenean, gure etxean. Eneko Sagardoy gazte batek gidatu zuen ekitaldia, berak idatzitako gidoiagaz. Han batu ginenok konturatu ginen gazte hark talentu handia zuela, bai antzezteko eta baita gidoigintzan aritzeko ere. Zoragarri pasatu genuela akorduan dugu.



izei
ebanisteria
Zorionak Anboto
25 urte!
Eskerrik asko, orain arte emandako guztiagaitik.



Pasioan oinarritutako sukaldaritza
ESKAINTZA GASTRONOMIKOA
EZKONTZAK
CATERINGA
COFFEE BREAK
saltsan
KONFIANTZAN
Zorionak, Anboto!
Kurutziaga 40 . Durango
Tel.: 94 620 04 27 / 688 773 205
saltsan@saltsan.com
saltsan_katerin



2014 **GUKAK TXUPINAZOA**
Lehenengo pertsonan, pluralean leloa aldarri hartuta, 2011n euskalgintzaren batasunaren garrantziaz ohartuta sortu genuen GUKA. Ekimeneko kide gara gaur egun ere AEK, Euskal Herrian Euskaraz (EHE), Ibaizabal ikastola, Berbaro euskara elkartea eta ANBOTO. 2014an txosnaguneko txupinazoa jaurti genuen sanfaustoetan.



2017. URTEA **KUDEAKETA AURRERATUA**
Euskalitek emandako formakuntzaren bitartez, kudeaketa aurreratuan sakondu genuen, enpresa ikuspuntua eguneroko jardunean txertatzeko. Horrela, Innobideak-Kudeabide programaren parte hartzaile legez, Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria eskuratu zuten hainbat hedabidek, tartean ANBOTOk. Donostiako Kursaalean egindako ekitaldian jaso genuen errekonozimendu hori, Tokikomeko beste hedabide batzuekin batera.



2017. URTEA **TOKIKOM SARIAK**
Usurbilen antolatutako Tokikom Sarietan saku bete sarigaz itzuli ginen. Durangoko bonbardaketaren inguruko ale berezia saritu zuen epaimahaiak. Gainera, aipamen berezia jaso genuen Otxandioko bonbardaketaren inguruan MUko ikasleekin batera grabatutako 'Paperak' dokumentalagatik.



Landakon txertoa ipintzeko gunea.

2020. URTEA **PANDEMIA SASOIA**
Pandemia sasoian, tokiko hedabideen aldeko hautua oso argia izan zen gertuko informazioa jasotzeko. ANBOTOn lanean jarraitu genuen gure komunitatea informatuta mantentzeko. Sasoi hartan, gure webgunearen bisitak bikoiztu egin ziren.





Urteurren ekitaldia. XERRA

2026. URTEA **25. URTEURRENA**
Mende laurdeneko ibilbideak ospakizuna merezi du, eta horrela egin dugu, Plateruenean. Gure ibilbidearen errepasoan momentu garrantzitsua izan da une hau. Mila esker!







GOTZON GOMEZ
GEREDIAGA ELKARTEA

"Gerediaga Elkartearen sena eskualdea zaintzea, ikertzea eta zabaltzea bada, ANBOTO norabide berean bidelagun dugu, zalantza izpirik barik. Globalizazioa hain hedatuta dagoen sasoian, Durangaldeak zelan arnasten duen ezagutzea derrigorrezko ariketa dela uste dugu, eta ANBOTOk herririk herri gertuko errealitatea erakusten digu. Gertuko informazioa eskura izatea ezinbestekoa da, eta bizitzea egokitu zaigun gizarte korapilatsu honetan estimatzen dugun aire freskoa da. Eskerrik asko eta jarraitu Durangaldearen alde lanean beste 25 urtez gutxienez!



JAIONE AGIRREGABIRIA
AIRATU OTXANDIOKO EUSKALGINTZA TALDEA

"Euskarazko hedabide 'handi' gutxi dugu Euskal Herrian, eta horiek iraun dezaten beharrezkoa da eskualdeetako komunikabide txikien lana. Euskal komunitate zabal eta indartsua eraikitzen laguntzen dute. Bestalde, pozgarria izaten da asterik aste norbere herriko albiste eta ekimenak bertan irakurtzea, aurpegi ezagunak azalean ikustea, herritar talde xume batek antolatutako ekimenei oihartzuna ematea. Txikiak indarra hartzen du, gertukoa bihurtzen da erdigune, eta inguruko herriekiko kohesioa ere indartzen du. Segi dezala beste horrenbeste urtez!"



PELLO ZABARTE
BERBARO ELKARTEA

"Batzuek eskualdeko berri guztiak irakurtzen dituzte. Besteek nahikoa dute norbere herriko lerroburu eta argazkiak errepasatuta. Hainbatek elkarrizketa sakonetan ipintzen dute arreta, eta beste askok gurago dituzte gai librea edo lau-hortzeko zutabea. Badaude ere, zelan ez, atal kutuna dutenak: kultura, kirola edo agenda. Makina bat modu dugu ANBOTO irakurtzeko, askotariko desio eta afizioak ditugu eta. Baina denoi eskaintzen dizkigu komunitate egiten gaituzten zutabeak: Durangaldea eta euskara. Eskerrik asko 25 urtez gure territorio librea kontatzeagaitik. Gora gu eta anbototarrak".



MAITE DE LEMOS
DIBA KOOPERATIBA

"Anboto komunikabideak 25 urte betetzea albiste pozgarria da guretzat ere. Hasieratik izan gara proiektu honen bidelagun, geuk ere gure aletxoa ipinita. Tokiko komunikabideek funtsezko lana egiten dute herri baten egunerokoa eta nortasuna zabaltzen. Gertuko informazioa euskaraz eskaintzea, gainera, Durangaldearen berezitasuna eta aberastasuna zaintzeko modu bat da. Horregaitik, garrantzitsua iruditzen zaigu ANBOTO lako proiektuek aurrera jarraitzea. Zorionak eta ea beste urte askoan elkarregaz jarraitzen dugun".



KOLDO ZARATE
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

"Euskarazko komunikabide batek hain ibilbide luzea izatea eta bizi-bizirik jarraitzea poztekoa da. Tokiko albisteek interesa pizten dute eta albiste horiek euskaraz irakurri ahal izatea garrantzitsua da. Informazioaren sinesgarritasunak zalantza eragiten duen sasoian, ANBOTO lako komunikabideek goraipatzeko lana egiten dute. Etorkizunera begira errealitate berriei egokitu beharra egongo da, denei gertatzen zaien moduan, baina bide oparoa ikusten diet. Nik ANBOTO gustura hartzen dut barikuero, eskualdean gertatzen denaren berri jakiteko. 25 urte alajaina, zorionak!".







25 urtez *informatzen.* 25 urtez *balioa gehitzen.*

EROSKIren izenean, zorionak eman nahi dizkiegu, guk bezala, garrantzitsuena elikatzen dutenei: **pertsonak**

Informatzea ere zaintzeko modu bat delako.

EROSKI zurekin



IMA EGUEN
ERAZ

"Hasierako urteez oso gomuta ona dut. Andoni Mugikak deitu zidan, ea laguntzeko prest nengoen galdetzeko, eta baietz esan nion. Lantalde polita batu ginen. Segun Lazkano, Kepa Arroitajauregi eta Izaskun Ellakuriaga ere talde hartako kide izan ziren, eta gogoan izan gura ditut. Proiektua herririk herri eta udalik udal aurkezten ibili ginen, eta era guztietako ordezkari politikoekin berba egin genuen. Langile guztiek lan handia egin zuten, lan ona. 25 urte bada zeozer eta ANBOTOri eta euskarazko komunitateari ibilbide luzea opa diot. Beste urte asko egin dezala!".



JUANITO GALLASTEGI
ABADEA ETA EUSKALTZAINA

"ANBOTO sortu zenean, euskarazko komunikabide bat izatea premiazkoa zen eskualdean; gaur egun ere beharrezkoa da. Urte batzuetan kolaboratzaile aritu nintzen, eta hartu-eman berezia izan dut komunikabideagaz. 25. urteurreneko galan oso gustura egon nintzen eta asko gustatu zitzaidan; pozgarria da egindako bidea ikustea. Guk geure egin genuen proiektua, eta orain gazteei dagokie euren bidea egitea. Nik, behintzat, ANBOTO astero jasotzen dut etxean: barikuero badakit etxeko ateraino ekarriko didatena, eta paperean irakurtzen dut. Ohitura hori ez nuke galdu gura".



IDOIA ELORRIAGA
ANBOTOKIDEA

"Barikuero ANBOTO norbere etxean jaso, sukaldeko mahai gainean zabaldu eta gure herrietan gertatzen denaren berri jakitea erritu bat da niretzat. Gustura irakurtzen dudan astekaria, horixe da ANBOTO niretzat. Askotan atzeko elkarrizketatik hasten naiz, sarritan pertsona eta elkarrizketa kuriosoak izaten dira. Gero nire herriko albisteei begiratzen diet, lurretakoei. Ondoren, astekari osoari ematen diot gainbegiratua. Batzuetan Interneten ere bai, baina batez ere paperean irakurtzen dut eta urte askoan horrelaxe jarraitzea espero dut".



ASIER BILBAO
ZORNOTZAKO EUSKALGINTZA

"Zornotzako euskararen ekosistemak hainbat elementuz osaturiko hezurdura behar du: hezkuntza, aisialdi eskaintza, erakundeen konplizitatea, talde eragileak, baliabide fisiko eta ekonomikoak... baita euskarazko komunikabideak ere. ANBOTOk hutsune hori betetzen lagundu du. Helburu informatiboa du, herriko eta gertuko albisteen berri ematen du, eta gertukoa gertukoago bihurtzen du. Baina ANBOTOk egiten duen lana informazio hutsetik harago doa; azken finean, euskal komunitatea saretzen laguntzen du eta hori oso garrantzitsua da".



EURI, MADDI ETA UXUE
ANBOTOKO BANATZAILEAK

"Barikuetan ANBOTO etxerik etxe banatzea esperientzia polita izaten da normalean. Egun batzuk beste batzuk baino luzeagoak egiten zaizkigu, baina normalean jendea oso jatorra izaten da gugaz. Batzuetan, gainera, gu noiz helduko zain egoten dira, eta alea jasotzera jaisten dira atarira. Beste batzuetan kontrakoa gertatzen zaigu: adinekoak direlako, lesioren bat dutelako edo beste arrazoiren bategaitik ezin dira jaitsi, eta etxeko ateraino eramaten diegu alea. Oso esker oneko agertzen dira. Pozgarria da irakurleek gure etorrerari hain harrera ona egitea eta ANBOTO gogoz jasotzea".





ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA

ANBOTOKIDE

25 URTE 25 SARI 25 EGUNETAN

Oso urteurren berezia da guretzat, eta bidelagun izan zareten guztioi bihotzez eskerrak eman gura dizkizuegu, zuen babesa ezinbestekoa da eta.

Oraindino ez zara **ANBOTOKIDE**?
Batu komunitatera eta ez galdu aukera!

940 810 568
anbota.org/egin-kide
EGIN ANBOTOKIDE


Durangaldeko produktu sorta



AZAROAK 16

Garai konserbak eta Urien gaztandegiko produktu sorta

Talaso Zelai Hotel Zumaia



AZAROAK 17

Talaso saioa eta gosaria Zelai Hotelean
ZUMAIA

Gailu elektrikoen sorta



AZAROAK 18

Alcamporen eskutik etxerako gailuak

Neumaticos Etxebarria



100€-ko bonua pneumatikoetan
DURANGO

Musika sorta



F.Muguruzaren binilo bilketa eta Ukelele instrumentu bat

Errigorako otzara gorria



Nafarroako Erriberak emandako produktuekin gozatzeko aukera

Latxaberri txahal okela



5 kg-ko LOTEA, 650 g-ko 8 pakete
ABADIÑO

Txirrindularitzarako materiala



Ciclos Iturriaga, Basati Bike eta Malda Bikes-en material sorta
ABADIÑO

Mancisidor 1866



Mancisidor bitxi dendaren eskutik 300€-ko bonua
DURANGO

Virginia Ansorena



Virginia Ansorenaren eskutik, aurpegiko tratamendu premium-a
DURANGO

Garena Jatetxea



Lagun birentzako taberna menua
DIMA

IrriSarri Land abentura parkea



Abentura pakerako 2 sarrera Pro

Ana Camarero



Ana Camarerorren eskutik aurpegiko tratamentu pertsonalizatua
DURANGO

Nekatur opari txartela



Nekaturren eskutik egonaldi baterako 180€-tako opari txartela

2200 ko Magefesa parrilla elektrikoa



Izarbe Elektrotresnak-en eskutik 2200w-ko parrila elektrikoa
IURRETA

Eusko Label Winter Series



Finala 2 sarrera OTSAILAK 13
BERRIKA

Keinu Optometria Zentroa



AZAROAK 19

150€-ko bonua zerbitzu edo produktuetan
BERRIZ

Mikel Caravaning



AZAROAK 20

Lau etzaulki mahaitxoarekin
IURRETA

ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA . ZOZKETA BEREZIA

Garena kontatzeko sortu zen proiektuak 25 urte egin ditu; zorionak, anbotozale!

ANBOTO Durangaldeko eragileei eskerrak sortu eta garatu den proiektua da



ANBOTOko lantaldea.

Jone Guenetxea DURANGALDEA

ANBOTOren 25. urteurrena ospakizunerako data esanguratsua da, baina baita hausnarketarakoa ere. Nondik gatozen, eta batez ere nora goazen aztertzeko aukera ematen digu.

'Garena kontatzeko' leloa aukeratu dugu urteurrenerako, gure komunitatea erdigunean ipinita. Zero kilometroa lantzen dugu, bertatik eta bertokoentzat egindako kazetaritza da gurea. Herrigintzatik sorturiko ekimen guztien antzera, ilusio handiagaz eta baliabide gutxigaz ipini genuen proiektua martxan, orain 25 urte. Sasoi hartan ibilbide bat eginda zuen ERAZ aldizkaritik ANBOTO sortu zen. Publiko zabalago batengana heltzea zen helburua, sasoi hartako GOIENAren ereduari jarraituta. Formatu aldaketa bat eta doakotasuna izan ziren ardatz nagusiak. Sasoi hartan Durangaldeko ia herri guztietan martxan zeuden euskara elkarteek proiektua bultzatu zuten. Santa Anako pisua zen gure lokala, sasoi hartako Berbaroren tabernaren gainean. Xabier Amurizak pisu handia izan zuen egitasmoan eta lan ikaragarria egin zuen zein euskara eredu landu erabakitzean. Tokiko kazetaritzan sinistu dugu, hasiera-hasieratik, eta edozein informazio da tokikoa. Herri edo hiriren bateko auzo edo kaleren batean norbaiti gertatu zaion edo eragin dion zerbait. Tokiko istorioek dena delakoagaitik errelebante bihurtu eta nahinongo hedabideetan agertzen direnera arte. Hedabiderik handienak ere konturatu dira horretaz, eta etxeko lanak egiten dabiltza txoko txikietako istorioak kontatu guran. Guk hasieratik jakin dugu tokikotasunak urrea balio duela, horretan 25 urte daramatzagu eta.

Kazetaritzaren ikuspuntutik, tokiko hedabideok gure komunitateari begira lan egiten dugu. ANBOTOren kasuan, komunitateko kide bat gehiago garela sentitzen dugu. Herrigintzatik eta euskalgintzatik sorturiko proiektua izanda, izaera horri eustea ezinbestekoa deritzogu. Gertuko informazioa lantzea ardura handia da guretzat. Eskualdeko jendeak gugan ipinitako konfiantzari profesionaltasunez eta gertutasunez erantzutea da gure helburua.

Urteurrenak gure mezua zabaltzeko eskaintzen digun aukera baliatuta, egunero euren informazioa ANBOTOra helarazten diguten elkarte, eragile eta norbanakoei eskerrak ematea ezinbestekoa da. Norabide biko bide horri eskerrak aberasten eta gaurkotzen dira gure edukiak. Bestalde, 25 urtean gure kolaboratzaile izan direnei ere, eskerrik asko! Iritzi kritikoa lantzerako orduan, bakoitzak beretik egindako hausnarketek ere ekarpen garrantzitsua egin diote gure proiektuari.

Esker onen zerrendan ezinbestekoak izan diren bidelagun gehiago aintzat hartu gura ditugu: Eraz, irakurleak, harpidedunak, Anbotokideak, lantaldea, langile ohiak, iragarleak, babesleak, banatzaileak, elkarteak, eragileak, euskalgintza eta Berbaro euskara elkartea. Zuek denok barik ez litzateke proiekturik sortuko, eta ezta mantenduko ere. Gora gu eta gutarrak!

Urteurren ekitaldiko edukiak ikusteko, eskaneatu QR kode hau.





Galtzareta Kalea, 13 · 48200 Durango, Bizkaia 946 20 08 22 · kurutziagaikastola.eus

KURUTZIAGA IKASTOLA
BIZITZEKO HEZI



Anboto, beti aurrera euskaraz hazten eta hezten

Zorionak eta urte askotarako!



"Guk komunitatearekin batera jardun behar dugu hedabidegintzan"

IBAN ARANTZABAL TOKIKOMEKO PRESIDENTEA

Euskarazko tokiko hedabideok lekuan lekuko euskalgintzagaz eta komunitateagaz dugun lotura azpimarratu du Goienako zuzendari nagusiak


Iban Arantzabal.

Jone Guenetxea DURANGALDEA

Hedabidegintzan aritua eta aditua da Iban Arantzabal. Tokikom euskarazko tokiko hedabideen bateraguneko presidentea izateaz gainera, Goiena komunikazio taldeko zuzendari nagusia da. Tokiko kazetaritzaz gogoeta egiteko eskaera egin eta zorrotz erantzun die galderei.

Iaz Goienak 25 urte, eta aurten Anbotok. Mende laurden baino gehiago gertuko informazioa lantzen. Tokiko hedabideen lana zergaitik da hain garrantzitsua?

Tokikoen izatea eta sorrera euskararekin lotuta daude eta gaur gaurkoz esan genezake tokiko hedabideen garrantzia askoz harantzago doala. Euskara sustatzeko duen garrantzia nahikoa ez, eta irakurleek diote ondoan nahi gaituztela. Eta zergatia galdetzen diegunean hauxe izaten da lehenengo erantzuna: "Gertuko notiziekin informatuta egon nahi dudalako". Begiratu Ameriketako Estatu Batuetara eta ikusiko duzue tokiko hedabideak itxi diren lekuetan eskuin muturrak gora egin duela; baita hedabiderik handienak tokiko hedabideak erosten dabiltzala ere. Ez dago inor tokikoen garrantzia baztertu dezakeenik.

Tokikomeko presidentea ere bazara. Tokikook zein ekarpen egiten diogu/diozue gure komunitateari?

Aurrekoan erantzun dut, nolabait. Hala ere, komunitate hitza aipatu duzu eta hor sakondu behar dugu. Gu ez gara bertso solte bat, euskal komunitatearen parte gara. Komunitatearen eskutik jardunda, ekarpena ba-





liozkoagoa da. Amaitu da alde bakarretik informazioa zabaltzearen formula. Guk komunitatearekin batera jardun behar dugu hedabidegintzan. Euskara elkarteekin, kultura elkarteekin, kirol elkarteekin, erakundeekin, eragile sozialekin, herriko dendekin... Gu "denda bat gehiago" gara eskualdean, eta eskualdez eskualde Euskal Herrian.

Euskarazko tokiko hedabideen ibilbidean, Tokikomen sorrera mugarria izan da. Zuk zelan bizi duzu hori?

Sortu ez bagenu, sortu beharko genukeen sentsazioaz bizi dut. Seguru nago ANBOTOko zuzendariak, Tokikomeko presidente izan zenak ere, uste bera duela. Hau da, Tokikomek tokiko hedabideak profesionalizatzea ekarri du. Ez da nolanahikoa! Ibilbide bat izan da eta ikasten joan gara: kazetaritza hobea egiten, zerbitzu hobea ematen, kudeaketa zorrotzagoa, puntako tresnak... Ikasi dugu lana hobeto eginda baino ez dela posible sortze helburuak eta komunitatearen beharrizanak asetzea.

Zein garapen izan du Tokikomek?

Oso handia eta emankorra. Hedabideok krisi hotsak bizi genituen Tokikom sortu genuenean; gure hipotesia zen elkartuta hobeto erantzungo geniola etorkizunari, eta funtzionatu egin zuen.

Orain, gauden garapen fasean, aldiz, elkartuta bakarrik ez, elkarrekin lan egitean jarri behar dugu indarra, estrategia bateratuekin. Horrek esan nahi du Tokikomeko lankideek eta hedabideetakoek batera pentsatu eta eraiki behar dutela hedabide multzo handiagoa eta eraginkorragoa. Behar dugu gizarte moduan, behar dugu hizkuntza ikuspuntu batetik, eta baita hedabidegintzan lanean gabiltzanon aldetik ere.

Desinformazioaren aroa bizi dugu. Txikitik eta gertutik zein ekarpen egin diezaiokegu geure komunitateei?

Kalitatezkoa. Handitik egin daitekeenaren tamainakoa bai, behinik behin. Zergatik? Ba gure proiektuak sinesgarriak, eraginkorrak eta maitatuak direlako. ANBOTOk ez du jendea alineatzeko nahirik, ANBOTOk ez du tranparik egiten iritzia eta informazioa nahastuta, Anbotok ez du zurrumurrulogia oinarri, Anbotok nahi du gero eta jende euskaldun eta euskaltzale gehiagok irakurtzea. ANBOTOk desinformatuko balu, atea itxi beharko luke, komunitateko norbanakoek kargu hartuko liokete. Hori zama handia da, baina era berean babes handia. Gure ekarpena zintzotasuna da.

Informazioaren eta hedabideen mundua ziztu bizian aldatzen dabil. Momentu honetan zeintzuk dira erronkak?

Galdera honi digitalizazioaren edo Adimen Artifizialaren komodinarekin erantzun dakioke, baina ez. Gurearen moduko proiektu komunitarioei dagokienez, alor digitalari ongi erantzunez jarraitu beharko dugu, baina inbertsioa fisikoan dago. Gure irakurleen harremanean, ezagutzan, ekintzak batera antolatzean, kalean, gune konpartituetan... Norbaitek esan lezake: baina hedabide baten lana ez da aldizkaria, Internet eta bideoak egitea? Erantzuna "bai" da, editorial zainduarekin eta zintzo. Hala ere, dena digitala dirudien garaiotan pertsonatik pertsonarako harremanean dago erronka. Tokikook, gainera, abiatze puntu ona daukagu gertutik erantzuteko.

Adimen Artifiziala ere ekuazioan sartu da, indartsu. Hedabideen ikuspuntutik zein ekarpen egin dezake eta aldi berean zein mehatxu sortu dira?

Ezin iskin egin Adimen Artifizialaz berba egiteari, e? (barrez). Pertsonako dugu uste bat-eta, zenbat buru... Adimen Artifiziala prozesuak arintzeko erabiliko dugu, adibidez, baina kazetaritzari dagokionez inoiz ere ez informazio iturri fidagarri gisa. Gure lana oso lotuta dago kontrastea egitearekin eta irakurleari kontraste hori eskaintzearekin. Hori pertsonek egiten dute, ez makinek. Kontua ez da Adimen Artifiziala deabrutzea ere, baina bai babes-betaurrekoak jantzita jardutea: ez dadila izan lehen aukera, ez dadila izan aukera inkontzientea, ez egin kasu itsu-itsuan baldin eta atzetik daudenak algoritmoak badira, enpresa multinazionalak, boterea... Makina hauek ez daude pentsatuta garenari on egiteko, baizik eta dirua irabazteko edo kontrolatzeko. Gure eredua ezin da izan makinen aurrean makurtutakoa. Tokiko kazetaritza pertsonek egiten dute, eta pertsonentzat. Makinak behar baditugu, kontrola ditzagun guk geuk.

> **"Gure proiektuak sinesgarriak, eraginkorrak eta maitatuak dira"**

Baduzu mezurik ANBOTOren komunitatearentzat urteurrenari lotuta?

Ospatu. Durangaldeak ANBOTO merezi du, eta ANBOTOk merezi du. Ez dugu sakon pentsatzen eskualde batek horrelako proiektu bat izateak zer esan nahi duen. Urteurrenak balio dezala ere dugunaz harro egoteko. Kontuan har dezagun komunitate gisa garela eraginkorrak, eskualdez eskualde, tokikoz tokiko, urtez urte. Babestu euskarazko tokiko kazetaritza eta egin ANBOTOkide, beste horrenbeste urte osasuntsu betetzeko.



"ANBOTOk gu ere proiektuaren parte sentiaraztea lortu du"

LORENA PORRAS VELASCO ETA VANESA DELGADO GONZALEZ OSTALARIAK

ANBOTOn publizitatea ipinita, Durangaldean presente egoteko modua dute

A. Basauri IURRETA

ANBOTOren proiektua babesteko modu bat bertan publizitatea ipintzea da. Bada, Lorena Porras Velascok (Otxandio, 1981) eta Vanesa Delgado Gonzalezek (Durango, 1980) hautu hori egin zuten orain 15 urte. Badira ia hamarkada bi Iurretan Gau Argi taberna zabaldu zutela, eta euren ustez merkatari, ostalari eta bestelako eragileen arteko elkarlana ezinbestekoa da herria bizirik mantentzeko; tartean, ANBOTO Komunikabideak babestea. Ostalari bien berbetan, ANBOTO bitarteko ezin hobea da Iurretan eta oro har Durangaldean presente egoteko.

Urterik urte ANBOTOren bezero fidelak izan zarete. Zelan ikusten duzue orain arte izandako elkarlana?

Vanesa Deldago: ANBOTOgaz hartu-emana beti izan da oso ona. Orain 20 urte zabaldu genuen Gau Argi eta hasierako urteetan gure ardura negozioa martxan ipintzea izan zen. Urte batzuk joan eta gero, ANBOTOn publizitatea ipintzen hasi ginen eta halantxik jarraitu dugu gaur arte.

Lorena Porras: Bai, hala da. Guretzat erraza izan da beti ANBOTOgaz lan egitea.

Zein da ANBOTOk eskaintzen dizuen balio erantsia?

> **"ANBOTOk inguruko gertaerei buruz informatzen du. Herria eta herritarrak ipintzen ditu erdigunean"**

L.P.: Iurretan bertan dago eta Durangaldean kaleratzen den astekaria da, gertuko informazioa lantzen duena. ANBOTO etxekoa da guretzat.

V.D.: ANBOTOk eskualdean ikusgai egoteko aukera eskaintzen digu. Gainera, Durangaldean antolatzen diren ospakizun eta ekitaldietan ere presente egon gaitezke eta bitarteko bat da herritarrek gu apur bat gehiago ezagutzeko. Astekaria ez ezik, webgunea ere hor dago eta horrek aukera eman digu Interneten ere presente egoteko. Hori abantaila bat da guretzat.

Durangaldean ANBOTO lako proiektu bat egotea garrantzitsua dela uste duzue?

> **"ANBOTOn publizitatea ipintzea herriko proiektu bati laguntzeko modua ere bada guretzat"**

V.D.: Bai. Herritarrak informatuta egotea gura dugu. Informazio orokorra interesatzen zaigu, baina gertukoa ere bai. Inguruan gertatzen denak gehiago eragiten digu, eta horren inguruko informazioa izan gura dugu. Alde horretatik, ANBOTO oso garrantzitsua da. Nazio mailako beste komunikabide batzuetan ez duzu erraz topatzen gertuko informazio hori.

L.P.: ANBOTOk gertutasun handiagoa ematen du. Eta, askotan, gertu ditugun eta erabilgarri izan genitzakeen zerbitzuen berri jakin gura dugu herritarrok, urrunekoak baino gehiago. Gainera, ANBOTOk gure inguruko albiste eta gertaerez informatzen du. Herria eta herritarrak ipintzen ditu erdigunean.

ANBOTO lako tokiko hedabide bat ezingo litzateke bizirik mantendu merkatari eta ostalarien babesik barik, publizitaterik barik. Era berean, ostalariok erakusleiho bat behar duzue. Zuen ustez, garrantzitsua da tokiko ostalari eta komunikabideen arteko sinergia?

L.P.: Bai, denok dugu elkarren premia. Eta gure arteko elkarlana denon mesederako da.





ZORIONAK, ANBOTO!

Beste 25 urtez Durangaldea euskalduntzen eta informatzen jarrai dezazuen

Durangaldeko Mankomunitatea
Mancomunidad de Durangaldea

Tokiko komertzio, taberna, negozio edo proiektuek bizia ematen diote herri bati. Batak bestearengan eragiten du eta elkarreragite hori denon onerako da. Herrian ogia erosteko edo kafe bat hartzeko leku bat badaukat, ez dut beste inora joan beharrik. Bada, ANBOTO irakurrita, nire herrian zerbitzu berriren bat zabaldu duten jakin dezaket. Azken finean, dena dago lotuta.

V.D.: Herrian mugimendua egotea gustatzen zaigu. Eta tabernaren alboan beste establezimendu bat egotea denon onerako dela uste dut, horrek herria girotzen duelako.

ANBOTOn publizitatea ipintzeak balio izan dizue zuen negozioa ezagutarazteko?

L.P.: Bai. Dena dela, Iurreta herri txikia da eta denok elkar ezagutzen dugu. Beraz, ANBOTO lako proiektu bat babestea ere bada gure helburua, eta bertan publizitatea ipinita helburu hori lortzen dugu neurri batean. Gure negozioarentzat ona da, baina ANBOTO lako proiektu bat egotea denontzat da onuragarria. Elkarri laguntzea garrantzitsua da.



Lorena Porras eta Vanesa Delgado, Gau Argi tabernan.

V.D.: Herria egiteko modua dela uste dut. Herriaren parte izateko ahalegina egitea gustatzen zaigu denoi.

Euskara da ANBOTOren ardatza. Zuen egunerokotasunean edo tabernako bezeroekin hartu-emanean, balioa ematen diozue euskara erabiltzeari?

V.D.: Bai, eta ahal dudan neurrian ahalegintzen naiz bezeroekin euskaraz egiten.

L.P.: Bezeroekin euskaraz harremantzea garrantzitsua da, bai, eta euskaraz egiten ahalegintzen gara beti.

Amaitzeko, zein mezu zabaldu gura zenukete ANBOTOren 25. urteurren borobil honetan?

L.P.: Gure herrian eta gure inguruan gertatzen denaren berri emateko egindako lana benetan garrantzitsua dela nabarmendu gura nuke.

V.D.: Bai. Jende askok osatzen duzue ANBOTO. Banatzaileak ere ahaztu barik. Eta gu ere propiektu horren parte sentitzea lortu duzuela esan gura nuke. Hori ez da erraza izaten eta zoriontzekoa da. Iurretarrek asko maite dute ANBOTO, eta guk ere bai, jakina.



"Oso aberasgarria da tokiko merkatari eta hedabideen arteko hartu-emana"

MIREN EGUEN ARRIOLA ETA GORKA ITURRIAGA-ETXEBARRIA AGORRIA MERKATARIAK

Merkatariek ipinitako publizitateak ANBOTOren proiektua sostengatu du urte hauetan guztietan. Schmidt Abadiñok hainbat urteko hartu-emana du ANBOTOgaz

A. Basauri ABADIÑO

Abadiño Miren Eguenek (Abadiño, 1973) eta Gorka Iturriagak (Abadiño, 1977) orain 11 urte zabaldu zuten Schmidt, eta beste horrenbeste urte daramatzate, 11, ANBOTOren proiektua sostengatzen, bertan publizitatea ipinita eta Anbotokide izanda. Euren berbetan, ANBOTOn euren iragarkia agertzeak konfiantza ematen die bezeroei.

Zerk bultzatu zintuzten ANBOTOn pubizitatea ipintzera?

Gorka Iturriaga: Denda txiki batetik gentozen, familia negozio batetik: Iturriaga Sukaldeak. Bada, formatu aldaketa egiterakoan, nondik gentozen eta emandako pausoa azaltzeko, ANBOTO astekaria bitartekorik egokiena iruditu zitzaigun. Bezeroak erakartzea zen gure helburua, eta ANBOTO aukeratu genuen, eskualdean kaleratzen delako eta euskaraz delako.

Miren Eguen: ANBOTOgaz lan egitea oso erraza izan da beti. Ipini gura dugun publizitatea gure beharrizan eta gustuetara egokitzen duzue, eta euskaraz gainera. Eta bide batez, gure helburua lortzen dugu: gure jarduna 12.000 etxetan ezagutarazten dugu. Hori oso garrantzitsua da guretzat.

Beste komunikabide batzuekin alderatuta, zer ematen dizue ANBOTOk?

> **"Urte hauetan guztietan gizartean izandako aldaketetara egokitzen joan da ANBOTO"**

G.I.: Badaude beste komunikabide batzuk, beste formatu bat dutena. Baina ANBOTO da gurera ondoen egokitzen dena, eta komunikatzeko euskara erabiltzen duena, gure hizkuntza.

M.E.: Betidanik ezagutu dugu, etxekoa dugu. Euskaraz kaleratzen da eta gertuko informazioa lantzen du. Gainera, ANBOTOk baditu betiko bazkideak, proiektuan konfiantza dutenak. Bada, bertan publizitatea ipinita guk ere bezeroari konfiantza hori ematen diogula uste dut: "Zuengana nator ANBOTOn ikusi zaituztedalako, konfiantza gehiago ematen didazuelako". Hori da proiektuak duen balio erantsia. ANBOTOn publizitatea ipinita, bezeroari gertutasuna ematen diogu.

> **Bezeroari gertutasuna ematen dio gu ANBOTOn agertzeak, gurea den hizkuntzan"**

G.I.: Seguru nago etxean sukaldea ipini diogun bezero asko ANBOTOren irakurle direla.

M.E.: Bezeroei galdetzen diegu ea zergaitik etorri diren gugana, eta hainbatek esan digute: ANBOTOn ikusi zaituztedalako.

ANBOTOren komunitateko kide legez, zelan ikusten duzue egindako bidea? Durangaldean garrantzitsuak dira horrelako proiektuak?

M.E.: Urte hauetan guztietan gizartean izandako aldaketekin batera egokitzen joan da ANBOTO ere (Internet, sare sozialak..), ezinbestean. Denok egin behar izan dugu bide hori. Eta ANBOTO lako proiektuak garrantzitsuak ez ezik beharrezkoak ere badira. Etxeko gauzak jakin behar ditugu. Horixe da niretzat ANBOTO. Inguruan gertatzen denari buruz informatzen naiz. Inguruko pertsonak agertzen dira bertan; dela sari bat jaso duelako edo liburu bat idatzi duelako. Nazio mailako beste hedabide handietan askotan lekurik ez duten gertuko pertsona horiek bere lekua dute ANBOTOn.

G.I.: Gure inguruko herrietako eta auzo txikietako notiziak ja-





Miren Eguen eta Gorka Iturriaga, Abadiñon duten sukalde dendan.

sotzen ditu; beti norabide berean, gertutasuna eta euskara ardatz hartuta. Gustura irakurtzen dugu astekaria; aukera badugu, paperean.

Zuen egunerokoan eta bezeroekiko hartu-emanean, zer balio du zerbitzua euskaraz eskaintzeak?

G.I.: Oso garrantzitsua da guretzat, kontrataziotik hasita. Zerbitzua euskaraz eskaini ahal izatea garrantzitsua da guretzat.

M.E.: Egia esanda, lehenengo urteetan gure proiektura batu zen jendea ez zen euskalduna, eta horrek eragina izan zuen gugan. Baina gerora zenbait aldaketa egon da eta taldera batutako langile berriak euskaraz modaltzen dira, lantalde osoa euskalduna ez den arren. Gure bezeroen %80 inguru euskaldunak dira, eta hartu-emana euskaraz izan ahal izateak konfiantza ematen du. Lana ondo egitea errazten du.

Tokiko hedabide bat ezingo litzateke bizirik egon inguruko merkatarien babesik barik. Baina, aldi berean, dendariok erakusleiho bat behar duzue. Tokiko komertzio eta hedabideen arteko hartu-emana garrantzitsua dela uste duzue?

M.E.: Bai, jakina. Inbertsio on bat dela esango nuke. ANBOTOren proiektuak aurrera jarraitu dezan laguntzen dugu publizitatea ipinita. Aldi berean, guk komertzio legez irabazi bat lortzen dugu, bezeroak erakartzen ditugu. Hartu-eman hori beharrezkoa da.

G.I.: Oso hartu-eman aberasgarria da, bai. Beharrezko ikusten dugu ANBOTOren parte izatea.

ANBOTOk 25 urte egin ditu. Zein mezu helarazi gura zeniekete proiektua sostengatzen duten irakurle eta babesleei?

G.I.: Denok apur bat eraginda indar handia egin genezake proiektu hau bizirik mantendu dadin. ANBOTOk eskaintzen duen gertutasuna oso garrantzitsua da, eta erakusleiho inportantea.

M.E.: Hala da. Eta egiten duzuen lanagaitik zorionak emateko aprobetxatu gura nuke, eta aurrera egin dezazuen animatu, proiektuak aurrera jarraitu dezan. Guk hor gura zaituztegu. Durangaldean etxekoa dugu jada, sukaldean eta etxeko gainerako lekuetan bere lekutxoa egin duena.



"Durangaldean urteotan euskararen alde egin den lanak bere fruituak eman ditu"

AITZIBER ATORRASAGASTI EUSKO JAURLARITZAREN EUSKARA SUSTATZEKO ZUZENDARIA


Aitziber Atorrasagasti, asteleheneko ekitaldian.

Aritz Maldonado IURRETA

Aitziber Atorrasagasti Eusko Jaurlaritzaren euskara sustatzeko zuzendariak "indarra eta gogoa" opa dizkio ANBOTOri, Durangaldeko euskal komunitatearen "bihotza izaten jarraitzeko".

Zelako osasuna dute euskarak eta euskarazko komunikabideek?

Euskara eta euskarazko hedabideak sistema konplexuak dira, eta, orokortasunetik harago, osatzen dituzten atal desberdinak kontuan izan behar ditugu. Baina atal bi azpimarratuko nituzke. Ezagutzan inoiz baino indartsuago gaude, eta hiru lurraldeetan gora egin dugu, Araban eta Bizkaian batez ere. Baina ezagutzatik erabilerara dagoen jauzia da gure erronka nagusia: kale erabileran hazi behar dugu, eta lurraldeen arteko aldeak handiak dira. Komunikabideei dagokienez, sektore bizia eta profesionala dugu, herri ekimenean errotua, baina hauskorra ere bai. Digitalizazioagaz merkatua eta kontsumo ohiturak aldatu egin dira, plataforma globalekin lehiatu behar da, eta audientzia digitalak zatituta daude. Geroago eta gatxagoa da sektorearen errealitatea ondo ezagutzea, oso azkar aldatzen dabilelako. Horregaitik, Hedabideak deialdiagaz batera adierazle sistema bat lantzen gabiltza, sentsazioetatik harago sektorea nora doan datuekin jakiteko.

Argazki horretan zelan ikusten dituzu Durangaldea eta ANBOTO?

Durangaldea Bizkaiko eskualde giltzarri bat da euskararentzat: oso herri euskaldunak eta euskalduntzen ari diren guneak ditu eskualde berean. Horrek konplexutasuna dakar, baina aukera ere bai. Ez da kasualitatea Durangoko Azoka hemen egitea. Eta ANBOTO da bertako euskal komunitatearen ispilua. Astero milaka etxetara heltzea eta sarean milioi bat orri-bisita baino gehiago izatea benetako indarra da tokiko hedabide batentzat. Dudarik barik, Durangaldean urteotan euskararen alde egin den lanak bere fruituak eman ditu.

Zelako eragina du ANBOTOk bere komunitatearen euskalduntzean?

Tokiko hedabideek ezinbesteko zerbait egiten dute: euskara bizitza errealagaz lotzen dute. Herriko jaiak, auzoko obrak edo seme-alaben taldearen emaitzak euskaraz irakurtzean, euskara ez da eskolako edo instituzioetako hizkuntza bakarrik, eguneroko bizitzakoa baino. ANBOTOk 25 urtez egin du hori. Euskaldun berri askorentzat lehenengo pausoa izan da irakurtzeko ohitura sortzeko, eta euskaldun zaharrentzat erreferentzia. Gainera, herritarren ekimenetik euskara elkarteen bultzadaz sortu zen.

Zeintzuk dira Jaurlaritzaren lehentasunak euskararen arloan?

Lehentasuna argia da: ezagutzatik erabilerara jauzi egitea. Horretarako, Jauzia Gara estrategia landu dugu, aurreko eguenean lehendakariak euskal komunitateari eskaini ziona, eta honen gainetik Euskararen Plan Estrategikoa onartu dugu. Hiru gauza nabarmenduko nituzke. Bat: erabilera guneak sortzea eta indartzea aisialdian, lanean eta arnasguneetan. Horretarako, plan bereziak martxan ipiniko ditugu euskararen erabilera sustatzeko. Bi: euskara ingurune digitalean lehian egotea. Horregaitik ari gara hizkuntza-teknologietan ikertzen eta inbertitzen, euskarazko korpusa sortzen eta berreskuratzen, Euskorpora elkartearen bitartez eta bertan parte hartzen duten eragileekin sare bat sortzen. Eta hiru: etorkinak eta orain arte euskaragaz hartu-emanik izan ez duten familiak euskarara erakartzea, euskaragazko eta euskal kulturagazko atxikimendua eta emozio positiboak oinarri hartuta.







"ANBOTOk eskualdearen berri euskaraz irakurtzeko aukera eskaini du 25 urteotan"

ISAAC AMEZAGA BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO EUSKARA ZUZENDARIA

Aritz Maldonado IURRETA

Urteurrena, ospatzeko ez ezik, "egindako lana aitortzeko eta eskertzeko ere bada", azpimarratu du Isaac Amezaga Bizkaiko Foru Aldundiko euskara zuzendariak. "Aurrera egin dezazuela, Durangaldea euskaraz kontatzen, herritarren eta erakundeen ahotsa izaten eta eskualdeko komunitatea ehuntzen". Aldundiarentzat Bizkaia euskaldunago bat izatea lehentasunezkoa da.

Zelako osasuna dute euskarak eta euskarazko komunikabideek Bizkaian?

Azken hamarkadetan aurrerapauso nabarmenak eman dira euskararen ezagutzan, batez ere belaunaldi gazteenen artean. Hezkuntza sistemak, euskararen aldeko politikek eta gizarte eragileen lanak emaitza garrantzitsuak ekarri dituzte. Geroago eta biztanle gehiagok dakite euskaraz, baina ezagutza horrek ez du beti erabileran isla bera. Hor dago, hain zuzen ere, gure erronka nagusia. Bizkaian euskararen egoera ez da berdina Lea-Artibain, Durangaldean, Arratian edo Bilbo Handian. Eskualde batzuetan euskarak presentzia eta indar sozial handia dauka; beste batzuetan, ostera, askoz ere gatxagoa da euskaraz bizitzeko eta hartu-emanak euskaraz izateko aukerak aurkitzea.



Isaac Amezaga, ekitaldi batean.

Euskarazko komunikabideei dagokienez, Bizkaian tokiko komunikabideen sare aberatsa dugu, eta hedabide horiek ezinbestekoak dira herrietako eta eskualdeetako errealitatea euskaraz kontatzeko. Hala eta guztiz ere, sektoreak zailtasun handiak ditu: finantziazioa, profesionalizazioa, lan baldintzak, publizitate-merkatua eta kontsumo ohituren aldaketa, besteak beste. Horri gehitu behar zaio plataforma digital handien lehia eta gazteengana ailegatzeko beharra. Ezinbestekoa da euskarazko eduki erakargarriak sortzea formatu eta kanal berrietan ere.

Bide horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzaren aterkipean, euskarazko hedabideak babesteko dirulaguntza-lerroak ditu, eta hori ezinbestekoa da tokiko komunikabideen jarduna eta, era berean, euskararen etorkizuna bermatzeko.

Argazki horretan, zelan ikusten dituzu Durangaldea eta ANBOTO?

Durangaldea, euskararen ikuspegitik, Bizkaiko eskualderik bizienetariko bat da, baina hemen ere herri batetik bestera aldeak daude, eta, batez ere, gazteen eta belaunaldi berrien eguneroko erabilera indartzea da erronka nagusietariko bat. Euskara ez da bakarrik ikastetxeetako edo erakundeetako hizkuntza izan behar; kalean, lagunartean, kulturan, aisialdian eta komunikazio digitalean ere bizi behar dugu.

Testuinguru horretan, ANBOTOk sano funtzio garrantzitsua betetzen du. Gertuko informazioa eskaintzen du, herrietako errealitatea ikusarazten du eta askotan komunikabide handiagoetan tokirik aurkitzen ez duten gaien berri ere ematen du.

Zelako eragina du bere komunitatearen euskalduntzean?

Ibilbide oparoa da ANBOTOrena. Aberasgarria, bai eskualdearentzat bai langile taldearentzat. 25 urte hauetan, belaunaldi oso batek izan du eskualdeko errealitatea euskaraz irakurtzeko eta ulertzeko aukera. Eta hori asko da. ANBOTOk euskarazko informazioa eguneroko bizitzaren parte bihurtu du: herrietako albisteak, gizarte ekimenak, kultura, kirola, eta herritarren kezkak euskaraz kontatu ditu. Euskara maitatzen dugun eta arduraren bat daukagun guztiok legez, uste dut ANBOTOk datozen urteetan ere baduela zeregin garrantzitsua. Bereziki, gazteengana heltzea, formatu digital berrietan presentzia izatea eta euskarazko kontsumo ohitura berriak sortzen laguntzea.









Webgune berri bat,
prest eta martxan,
hilean 15 eurogatik?

BAAI!



BAAI PUNTU .EUS

EGIN PROBA DOAN

BAAI.EUS